

Abarak

UNAI BREA

Sovietarren bost hamarkada 200 kliketan

SESBren 50 urte, Dmitri Baltermants-en argazki-makinaren arabera. Bilboko Alondegian. Ekainaren 29ra arte. Ordutegia: 10:00-20:00 (asteartetik igandera). Sarrera: 3 euro (Alondegiaren txartelarekin euro 2).

EZ DAKIT bietatik zein izan den zeinen aitzakia, baina kontua da egun berean ikusi ditudala estreinako aldiz Bilboko Alondegiaren eraikin berritua eta Dmitri Baltermants argazkilari errusiarraren lana, eta gehiago gustatu zait bigarrena, bata nahiz bestea osorik ezagutzeko oraindik asko falta zaidan arren.

Baltermantsi dagokionez behintzat, hark hamarkadetan egindako lanaren lagin txiki-txikia baizik ez du jasotzen, ezinbestean, *SESBren 50 urte* erakusketa honek. Berrehun argazki inguru, Moskuko Argazkigintzaren Etxea museoak utzita. Niri gutxiago zirela iruditu zait, beharbada erakusketa paratu duten aretoa handiegia delako, xede horretarako behinik behin; horma batetik besterako ezerezaren erdian jarri dituzten besaulkiei ez diet justifikaziorik aurkitzen kasu honetan. Inor ez da hain luze geratuko, Baltermantsen kiko obsesio patologikoa ez badu.

Aurreko baieztapena eginda ez dut Dmitri Baltermantsen lana gutxietsi nahi, ezta hurrik eman ere. Argazkiak bikainak dira; gerran egindakoez, bereziki, zirrara eragin didate. Baltermantsen argazkigintzari eskaini zion bizitza, baina nahi izatera edukiko zuen bestelako aukerarik lapikoa betetzeko, Ejertzito Gorriko kapitaina eta matematikaria ere bazen eta. Erakusketa-aren izenburuko mende erdiak 1939. urtea du abiapuntu. Handik gutxira, 1941ean, *Izvestia* egunkariak Bigarren Mundu Gerrako frontera bidali zuen Baltermants. Erretratu batzuek argi uzten dute ez zela konformatu gerta-



Grief (Nahigabea), Dmitri Baltermants-en argazkirik ospetsuena. 1945ean egin zuen, baina SESBn ez zen 1975era arte inprimatu.

kariak urrunetik behatzeaz. Gerraren gordinkeria ezkutatzen ere ez zuen jardun, lerro hauen gaineko *Grief* entzutetsuak, besteak beste, agerian uzten duenez.

Erakusketa-aretoa sartu eta ezkerretara aurkituko duzu "gerra saila". Hortik aurrera, gutxi gorabehera kronologiaren arabera ordenatuta, Baltermantsi bizitzeko egokitu zitzaion garai eta tokiko lekukotza dago. Herri xehea ikusiko duzu argazkiotan, eta ez hain xehea. Hari buruz irakurri dudana guztiaren arabera, Baltermants beti saiatu zen erregimen sovietarrarekiko distantzia bati eusten, baina horrek ez zion eragotzi agintariengandik oso gertu egotea fisikoki. SESBko Alderdi Komunistako idazkari nagusien erretratuak bere obraren zati garrantzitsua dira, Stalinen gandik Gorbaxovengana; Alondegian ikus daitezkeen gehienak Nikita Khrustxevengana izatearen arrazoia Moskuko museokoei galdetu beharko zaie. ■

Iruñeko Planetarioa
Antso Ramirez kalea, z/g Iruñea
www.pamplonetario.org